

MAITASUNA

Maitasuna constructo sozial bat da, kulturalki eraikitzen dena. Gure egungo sentimenduetan eragiten du iraganak (Torrego, 1999:272). Maitasun erromantikoaren sorrerak maitasunaren gorentasuna aldarrikatzen zuen sexuaren indarraren gainetik. Ikuskera horiek etxearen eta amatusunaren idealizazioa marraztu zuten. Gizonezkoen maitasuna, berriz, bifurkatu egin zen; afektuzko maitasuna etxerako gorde zen eta desioa kanporako (Giddens, 1999:43-44). Emilio Lledó filosofoarentzat laguntasuna zoriontasunaren forma gorena da (Guillén, 2001:81). Aristotelek zioen philia-ren hiperbole bat zela eros-a eta, bide beretik, Lain Foucaultek, Sexualitatearen historia liburuan, defendatu zuen bioboterea gizakia kontrolpean mantentzeko mekanismoa zela (Foucault, 2011:9). Sexualitatea errepresiotik bizitzea eta bikote harremana alternatibarik gabeko instituzio bezala aurkeztea ohiko praktika ziren Leteren gaztaroan. Hain justu, horren aurka oldartu zen kontrakultura deitu zaion mugimendua.

Kontrakulturaren oinarri garrantzitsuenen artean dago desioaren eta sexuaren askatasuna sustatzea: maitasun libreagoa, eta gorputzarekin harreman naturalago bat aldarrikatu zuen, eta moral judu-kristautik aldentutakoa (López, 1991:110). Lan honen helburu nagusia Letek maitasuna nola definitzen zuen ulertaraztea da. Horretarako, kantariaren obran maitasun abestiek izan zuten karga kuantifikatzea erabaki da. Kantaz kanta, maitasunari egindako erreferentziak bildu eta taldekatu dira. Horren ondoren, tematologikoki aztertu dira; eta azkenik, artistak hedabideetan idatzitako eta esandakoekin harremanetan jarri.

Aberria eta maitasuna

‘Lore gorrien balada’ eta ‘Otsoak eta txanogorritxu’, euskal gatazka garaiko bikote harremanak ardatz dituztenak. Kanta hauek kritika soziala dute helburu eta emakumeekiko alekzionatzaileak izan daitezke.

‘Aberri ilunaren poema’n, berriz, aberria maitale batean gorputzua ageri da eta desio konpulsibo bat deskribatzen du.

Maitasun kantak

Erotismoa
Maitasunaren lehen fasea konpulsibotzat zeukan eta ez zuen erabateko maitasun gisa definitzen. Lilura eta jabetzearen prozesua zela irizten zion. Desioaren eta pasioaren inguruko aipamen gutxi daude bere abestietan.
Maitasuna eta instintuak lotuta daude bere obratan: eder eta bortitz agertzen da zenbaitetan. Plazaratu zituen kanta erotikokoak, baina erantzun ezkorrak jaso orduko isildu zen.

Harremana
1965ean ezagutu zuen Lurdes Iriondo Letek. Leterentzat maitasuna argia zen
Maitasun harremana amore ematea zela irizten zion.
Leterentzat “nahimenaren makurlea” da maitasun harremana, berotik hotzerako bidaia.

Fideltasuna
Leteren kantatan tentazioak erakarpenaren memoria berpizten du. Fideltasuna lore bat da.
Leialtasun faltari idatzitako bi kanta grabatu zituen.
Erruduntasun kristaua oso nabarmena da bietan.
Barkamenak lortzea erdietsi zuen zahartzaroan. Erakarpenetik urrun eta solidaritatetik gertu dagoen sentimendua zen maitasuna Leterentzat.

Maitasun harreman oztodunaren maitemina fase hura, 1965etik 1968rako, oso intentsua izan zen; baina aro hura bat dator Leteren sorkuntza faserik sozialarekin eta existentzialarekin. Leteren kritiko zen jendartearekin lerratzen ez ziren poetekin eta bere idazlanetan maitasunari espazio gehiago emateak kritikagai zuen eredu gorpuztera bidera zezakeen. Maitasun aitortza hori beldurrik gabe egin zuen, ordea, bizitzako azken urteetan. Idatzi, maitasunezko kantak idatzi zituen; baina ez zituen bere ahotsean kantatu. Itxuraz, bere figurari zegokion kantagintzari beste funtzio bat aitortzen zion. Maitasun abestien kantari etiketa ez zetorren bat artista moduan proiektatu nahi zuen irudiarekin.

Maitasuna heriotzaz eta aberriaz hitz egiteko modu bat da, batez ere, Leterentzat.



Senitarteko edo lagunetikiko maitasuna

Amatoriaz ez ezik, harremanez; eta leialtasunaz dihardu Letek. Adiskideei, lurraldeari eta aberriari lotutako leialtasuna ziren bere maitasuna ulertzeko modua.

Erotismorik gabeko kantak leudeke, baina aipagarria da hizkuntzaren erabilera bat datorrela maitasun abestietakoekin.

‘Seaska kanta’ ere maitasunez betetako kanta da, haur batekiko da.

Aitaren belaunaldiaz mintzo den kantan maitasuna eta errukia nahasten dira.

Maitasuna eta heriotza

Maite zituen pertsonak galtzeak desasosegua sortzen zion, eta haien heriotzean edo heriotz atarian argitaratutako kantak maitasun aitortzak dira.

Gaixo bizitzeak heriotzari begietara begiratzeko aukera eman zion.

Zeruko Argia: “Maitasunak egiten du heriotza ikaragarria, ez besteak. Nik ez dut nahi nire maitea egunen batean ni gabe gelditzea, eta ni bere maitasuna gabe suertatzea. Hori ezin daiteke! Maitasunak etorkizuna eskatzen du. Horregatik egiten zaigu hain tristeza maiteagandik inoiz apartatu beharra, berriro bakarrik gelditzea”. (Perez-Gaztelu, 2020: 79)

